PDF irisgarria

Irakurketa Errazean

Memoriaren Ibilbidea–Ezkaba

Memoriaren Ibilbidea-Ezkaba
Ezkaba mendian dago, Nafarroan.



Mapa honetan kolore gorrian
Ezkaba non dagoen ikus dezakezu.

1936. urteko Estatu Kolpea eta gero
frankistek San Kristobal Gotorlekua preso politikoak,
hau da,frankismoaren aurka zeuden pertsonak
espetxeratzeko erabili zuten.

1938. urtean 795 presok
San Kristobal Gotorlekutik
ihes egiten saiatu ziren.
Frankistek preso horietako asko
berriz espetxeratu zituzten gotorlekuan
baina beste asko mendian hil zituzten.

Memoriaren Ibilbidea-Ezkaba
Berriozarko Udalak eta Ahaztuak 1936-1977 elkarteak
eraiki zuten ibilbide bat da.

Ibilbide honek
gotorlekutik ihes egiten saiatu ziren
presoak gogorarazten ditu.

Memoriaren Ibilbidea-Ezkabak
ia 7 kilometroko luzera du,
475 metroko malda du
eta 2 ordu eta 15 minututan egiten da.
Hauek dira dituen geldialdiak:

- El Murallón hobia.
- San Kristobal Gotorlekua.
- Botilen Hilerria.
- Berriozarko Hilerria.
- Ihesaren Eskultura.
- Uraren Bideko hobia.

2014. urtean Ahaztuak 196-1977 elkarteak
Uraren Bideko hobian
eta El Murallón hobian dauden
monolitoak inauguratu zituen.

Hemen Memoriaren Ibilbidea-Ezkabaren
argazkia ikus dezakezu:

